



## NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



URDAIBAI BIRD CENTER

# Bi enara bidaiariren amodio istorioa

**O**laus Magnus artzapezpikuak 1555. urteko “Iparaldeko jendearen historia” obran idatzi bezala, udazkenean enarak ur sakonetan urperatzen dira, hurrengo udaberrira bitarte. Izan ere, “desagertu” baino lehen, urria erdialdean, ohikoa zen enarak urmaeletan pilatuta ikustea, lezka eta kanaberen artean. Bat-bateko desagerpena azaltzeko, lokatzetan lurperaturik hibernatzen zutela proposatu zen. Hurrengo urteetan egindako ikerketen ondorioz, errealtatea guztiz ezberdina zela ikusi zen. Enarek, beste hainbat hegazti egiten duten antzera, migrazioak burutzen dituzte, eta ez kilometro gutxi-koak: oso distantzia luzeko bidaiak egiten dituzte.

Arazoi horrengatik, Urdaibai Bird Center zentroak enara bere ikonotzat hartu zuen. Bada, ezagut dezagun zertxobait gehiago enaren bizitzaz. Horretarako, Ur-

daibaiko baserri bateko enara bikote bat hartuko dugu abiapuntu modura. Beraien istorioa ezagutuko dugu, bidean planteatutako galderen erantzuna bilatuz.

Galdera horien erantzunak argitzeko, 2014. urteko uztailearen 18an geolokaltzaile bana jarri zitzairen baserri batean habia egina zuen enara bikote bateko arrari zein emeari. Gailua transmisore txiki bat zen, txori bakoitzak lepoan eramango zuena, motxila bat bailitzan, Afrikarainoko bidaiaren. Gailu horrek, hain zuzen ere, hegazti fin eta trebe hauek burutuko zuten bidaiaren liluragarriaren sekretu guztiak gordetako zituen.

Behin transmisorea ipinita, enarak agurtu genituen Muxikako Etxebarrieta baserrian. Erronka itzela zen, izan ere, Afrikarantz abiatzen diren enaren erdia baino gehiago bidean zehar hiltzen dira. Hori bai, itzultzea lortzen duten enarek hainbat urte bizitzeko aukera izaten dute. Pentsa, jakin badakigu ezagutzen diren

enara zaharrenak 16 urte betetzera hel-tzen direla.

Migrazioan jatorri anitzeko milaka enarekin batu arren, gure bikotea ez zen elkarrengandik banatu Afrikarako bidaiaren luzera. Txundigarria benetan! Irailaren 9an Urdaibaitik hasi zuten joanaldia, Iberiar penintsula osoa eta Saharako basamortua zeharkatu zituzten, eta, hamar egunen buruan, irailaren 19an, Monrovia Liberiako hiriburuaren inguruan bukatu zuten beraien bidaiaren. 4.000 kilometro inguru egin zituzten, beraz, hegaz, eguneko 400 kilometro batez beste. Esan bezala, Liberia izan zen bikotearen helmuga, eta, bertan, sei hilabete igaron zituzten ehunka milaka enarek eratzen dituzten Afrikako etzalekuean. Negua pasata, martxoaren 28an hasi zuten Urdaibaira bueltako bidaiaren.

Hau bai poza! Bikotea Etxebarrieta baserri- bueltatu zen egun bateko aldearekin. Arra apirilaren 10ean bueltatu zen baserri- ra, habia okupatu eta babestera; emea, al- diz, egun bat beranduago heldu zen bien arteko amodio istorio zoriontsua gorenera eramateko. Zorteduna da enarak etxean dauzkan baserritarra, milaka intsektu ehi- zatzen baitituzte, ia atsedetik hartu gabe, beraien umaldiak elikatzen.

### TXORIAK ETA NEKAZARITZA EREDUAK

Nekazaritza modernoa da Europako he- gazti arrunt ugari azken hamarkadetan

izan duten beherakada nabarmenaren arduradun nagusia. 2014an Erresuma Ba- tuko Exeterreko Unibertsitateko ikerketa batek hala ondorioztatu zuen. Nekazari- tza modernoan erabiltzen diren pozoi ki- miko ugariak (erleentzat horren kaltega- rriak diren neonikotinoideak kasu) txori askoren elikaduraren oinarria desagerra- razten ari dira –intsektuak, alegia–. Hori ez da inolaz ere nolanahiko kontua: in- tsektuen eta txorien populazioek garran- tzi handia dute ekosistemen orekan. Ez hori bakarrik, txoriek oso zerbitzu bali- garria eskaintzen diote gizakiari, izurriak kontrolpean mantentzeko “tresna” natu- ral oso baliagarria baitira. Beste alde ba- tetik, zenbait espezie landare espezie ezberdinak polinizatzen dituzte, edota zuhaitzen haziak sakabanatzen lagun- tzen dute.

SEO Birdlife erakundeak emandako da- tuen arabera, enara baten dietan euliak, el- txoak, inurri hegalaria, liztorrak, zimi- tzak eta kakalardo txikiak dira nagusi. Orduro, 60 intsektu jan ditzakete. Alegia, 850 intsektu egunean (gutxi gorabehera, 150 gramo intsektu egunero). Urte osoa hartuta, enara batek 310.000 intsektu ja- ten ditu (55 kilo guztira). Izurrien kontro- llatzaile aparta, ezbaierik gabe.